

**DONOSTIAKO GOTZAIN BARRIA**

Jose Ignacio Munilla dogu Donostiako gotzain barria. Beronen aukeraketak makina bat esames sortu ditu. Gauza asko entzun eta idatzi dira. Batzuk alde eta beste asko kontra. Sonatuena askorentzat, Donostiako Elizbarrutiko hainbat parrokok sinatutako agiria.

Ni neu ez noa han eta hemen esan diran gauzak aipatzera eta gitxiago oraindino iritzi horreek eztabaidatzera. Egia da, Elizan gotzainak aukeratzeko beste bide batzuk be erabili izan dirala. Baina gaur egungo bidea danok dakigu zein dan eta bide hori aldatu be egin leitekela. Momentuz daukagun bidea erabili izan da Donostiako gotzain barria aukeratzeko orduan. Bide berbera erabili izan da orain arteko gotzainak aukeratzeko be, esaterako, Jose M<sup>a</sup> Setien edo Juan M<sup>a</sup> Uriarte eta baita beste mendebaldeko Eliza Katolikoaren gotzain guztiak aukeratzeko be. Garbi dago, bada, Jose Ignacio Munilla Donostiako legezko gotzaina dogula.

Zalapartak sortu dirala? Eta noiz, ez? Edozelako hautapenetan gertatzen dira istiluak. Gainera gizarte oso zatituan bizi gara. Beti burrukan ari garala dirudi. Garrantzi handiko eta txiki-kiko gauzetan be bardin. Alderdi bat badago A.H.T.ren alde, besteak ezetz esan behar. Guggehein Urdaibaiko egitasmoaren alde bazagoz, berehalaxe hasiko jatzuz inguruan zaunkaka.

Bilboko futbolariak Euskadiko selekzioaren alde badagoz, Donostiakoak aurka edo alderantziz. Eta danean olantxe gabiltza. Burrukako kultura hau hazurretaraino sartuta bizi dogu. Hori bai, danok arrazoi potoluak darabilguz. “Gaitzak gerade pa-kean unitzen” inoan aspaldian Xenpelarrek.

Baita eliz mailan be. Hori ez da eskandalagarria. Kritikak, neurri baten, heldutasunez eta arduraz eginez gero, mesedegariak be izan leitekez. Eta Elizan be, eztabaidak ez dira atzo goizekoak. San Pauloren kartak edo Apostoluen eginak irakurtzea edo Elizaren historia apur bat jakitea, nahikoa dogu. San Benitok bere erlijiosoei emondako erregela famatuan arrisku hori aitatzen dau. Batez be Abata eta priore barriak aukeratzeko hauteskundeetan. Nire Ordenako hauteskundeak be, nahiz eta oso demokratikoak izan, sarritan istilutsuak be izaten dira. Gure kapitulu probintzialak eta jeneralak eta komunitateko batzarrak ez dira izaten beti bare-baretsuak. Ezta parroketako eta elizbarrutiko batzarrak be.

Egunotan entzun eta esan diran gauzakaitik, ez daukagu ba zetan eskuak burura eroan. Beti be eliztarrok kontuan hartze-koak ditugu San Agustinen berbak: “In fide unitas, in dubiis libertas et in omnibus charitas”.

### **Bertako gotzaina**

Jose Ignacio Munillaren bizpahiru ezaugarri positibo nahi neukez gogoratu. Semez gipuzkoarra dogu berau. Ganera donostiar peto-petoa. Gipuzkera ondo baino hobeto menperatzen dau. Oso-osoan, bertoko gotzaina dogu Jose Ignacio. Eta hori oso positiboa da. Gotzain batek bere eliztarren hizkuntzak eta ohiturak eta herriaren historia jakitea beharrezkoa da. Horretan behintzat, Gipuzkoako Elizak suertea izan dau.

Beste ezaugarri positibo bat, bere gaztetasuna. Gotzain gaztea eta gazteekin lan egiten dakiana. Bai Zumarragan eta bai Palencian gazte pastoraltzan nabaria izan da bere arrakasta.

Bere lehenengo karta pastoralak “Manda el porro a la porra” titulu esanguratsua dakar. Baditu gazte arterako aparteko dohainak eta karismak. Badaki gazteen bihotz barnean, Jaunaren deia suspertzen. Horixe bai dala etorkizunerako lanik preminazkoenatarikoa. Bestela hemengoak egin dau.

Donostiarra semez, gipuzkera ondo dakiana, gazteekin tratatzeko doinak dituana eta espiritualidade sakoneko gizona dogu Donostiako gotzain barria. Bere gotzain goiburuak “Zugan fidatzen naz” dino. Ezaugarri positibo honeek aitatzea besterik ez da izan nire asmoa. Pixka bat harritu egin nau beste inok gauza honeek aintzat be ez hartzea. Jesus Nazaretarraren esaera famatua, “ez da inor profeta bere herrian”, beteko ete da orain ere?

*A. Olea*